



GARBIKETA

Garbiketa-prozesuak oso garrantzitsuak dira alergenok kudeatzeko; izan ere, arestian ere esan den bezala, alergeno baten kopuru txiki batek alergia-erantzun larria eragin dezake pertsona minbera batengan.

Elikagaien enpresa batean Garbiketa- eta desinfekzio-plan bat ezarri behar da. Bertan zehaztuko dira zikinkeria desagerrarazteko eta mikrobio-karga minimoen azpitik kontrolatuta mantentzeko operazioak ([garbitzea eta desinfektatzea](#)). Gainera, enpresa batean alergenok kudeaketa zehatza egiten bada, bestelako jardunbide batzuk ere aintzat hartu beharko dira, garbiketa egokia izan dadin.

Garbitzeko jarraibideak

Garbiketa egitean alergenok kudeaketaren beraren baitan, jarraibide jakin batzuei jarraikiz jardun behar da, garbiketaren eraginkortasuna hobetzeko:

- **Garbiketa-sistema umelak** hobeak dira lehorrak baino; izan ere, ondo aplikatuta daudenean, elikagaien hondakinak hobeto garbitzen dituzte eta ez dute arrastorik uzten.
- Alergenok ukitzen dituzten eremuak, ekipoak eta tresnak garbitzeko garbiketa-ekipo eta tresnen **erabilera esklusiboa izango da**.
- **Ekipoak desmuntatu egin beharko dira**, garbiketa ahalik eta egokiena izan dadin.
- Alergenok instalazio osoan zabaltzea saihesteko, **aire-pistolak edo ur presioduna botatzekoak ahalik eta gutxien erabili** beharko dira.
- Laneko eta langileen zirkuituak **alergenorik gabeko elikagaiak egiten diren zonaldean** hasi eta alergenok dituzten elikagaien zonaldeetan amaitu behar dira.
- Garbitzeko argibideak dokumentatuta egongo dira eta honako informazio hau jaso behar dute:
 - Ardurak
 - Garbitu beharreko ekipo eta instalazioen erreferentziak
 - Garbitzeko desmuntatu beharreko ekipoen piezen erreferentziak eta irudiak
 - Erabiltzeko produktuak eta erabilera-argibideak
 - Garbiketen maiztasuna





Garbiketa balioztatzea eta egiaztatzea

Hainbat metodo daude eta industria bakoitzak operatiboena hautatzen du, bere ekoizpen-sistemaren arabera. Metodoen ezarpenaren erregistroak gorde behar dira.

Alergenoen kasuan, behatze-metodoa ez da nahikoa; izan ere, higienikoki egoera egokian dagoela ikus daiteke, baina ez alergenoen arrastorik dagoen. Horren ondorioz, gomendagarria da jada garbitu diren azalaren laginak hartu eta aztertzea, egon daitezkeen arrasto horiek atzemateko.

